



Chipi-Txapa bildumak lagungarri izan nahi du ikasleek hobeki ezagut dezaten Nafarroa. Horretarako oso pertsonaia bereziak, *Cikak*, lagun egingo die Nafarroako eskola umeei Nafarroa ezagutzen eta bultzatzen egingo die interes har dezaten beren lurralaren historian, lege zaharretan eta Nafarroa hain bere gisako egiten duten hizkuntza, kultura eta ohituren aniztasunean.

Luis Campoy Zueco

Hezkuntza kontseilaria

Izenburua: Nafarroako erreinua
Egileak: María Antonia del Burgo, Matías Múgica
Diseinua: Asís Bastida
Inprimaketa: Gráficas Lizarra

ISBN: 978-84-235-2933-9
L.G : NA-361/2007

© NAFARROAKO GOBERNUA. Hezkuntza Departamentua

Sustatzaile eta banatzailea:
Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
Navas de Tolosa kalea, 21
Telefona: 848 427 121
Faxa: 848 427 123
31002 Iruña
fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones

nafarroako

erreinua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

naifarroako

erreinua

aurkibidea

1 **Historia** baino lehen

6



2 **Baskoiak** eta erromatarrak

9



3 **Kristauak** eta paganoak

12



4 **Bisigodoak**

15



5 **Musulmanak**

18



6 **Iruñeko** erreinua

20



7 **Nafarroako** erreinua

24



8 **Nafarroako gizartea** Erdi Aroan

27



9 **Donejakue** bidea

31



10 **Dinastia** frantsesak

35



11 **Historia** baten bukaera

39



Hitzondoa 43

Glosarioa 44

Mapa 46



1.



Historia baino lehen

Paleolitoa

Paleolitoa Historiaurreko aldi luze-luzea da, Nafarroako lurraldean K.a. 200.000 eta 100.000. urte bitartean garatu zena.

Nafarroako orduko biztanleak nomadak ziren eta ehiza, arrantza eta basa fruituak eta landareak biltzetik bizi ziren. Ez baitzuten berek ezer produzitzen, toki bateko baliabideak ahitzen zirenean beste batera joan beharrean gertatzen ziren, animalia taldeei segika. Kobazulo handiak eta beroki naturalak zituzten bizileku.

Sua egiten bazekiten eta hildakoak ehorzten zituzten.

K.a. 75.000. urte inguruan Europa populatzen zuten gizonak **Neanderthaleko** gizonaren espeziekoak ziren, aski itxura primitibokoak. Geroago, K.a. 35.000. urte inguruan, beste espezie bat agertu zen: **Cromagnongo** gizona (*Homo sapiens sapiens*), eta Neanderthalekoa lekutu zuen, indarrez lekutu ere, agian. Cromagnongo gizonaren ondorengo zuzenak gara gaurko gizonak eta haren gorputz itxura bertsua dugu.

Paleolitoko lehenbiziko etapatik zenbait aztarna iritsi zaizkigu: harri tresnak, hala nola, lantza puntak, aizkorak, arraskailuak, bifazeak. Aztarnategi nagusiak Urbasan, Irunberrin, Lizarran, Zúñigan eta Vianan aurkitu dira.

Paleolitoaren bukaeran, *Homo sapiens sapiens* horrek harria lantzen ez ezik, adarrezko eta hezurrezko tresnak egiten ere ikasi zuen, hala nola amuak, arpoiak, jostorrazak, diademak eta apaingarrizko zintzilikariak. Tresna horien aztarnak Urbasan, Olatzagutian, Zatoian (Abaurrea), Urdazubín, Arraitzen (Ultzama) eta Etxaurin aurkitu dira.

Ezkerrean

● Esku aizkora (bifazea), Urbasan aurkitua

Paleolitoko gizonak harri landuzko tresnak erabiltzen zituen, hala nola esku aizkorak (1), ebakitzeko; arraskailuak (2), larruak arraskatzeko; eta gezi buruak (3), ihiziak hiltzeko.



1.



2.



3.



Ezkerrean

- **Arpoi apainduak (Berroberria).**

Behean

- **Artaxoako trikuharria.**

Eskuinean

- **Arraskailua (Nafarroako Museoa).**

Aurreko orrialdea, goian

- **Bifazea (Nafarroako Museoa).**

*Paleolitoko arte agerkaririk
ikusgarriena harpeetako pintura
da. Nafarroan Urdazubin,
Alkerdiko leizean aurkitu dira
garai hartako pinturen arrastoak.
Zaldien, bisonteen eta oreinen
irudiak ageri dituzte.*


■ Neolitoa

K.a. 10 000. urteaz geroztik klima beroagotu eta lehorragotu egin zen; hortaz lehenagoko ehizagai asko desagertu ziren, hala nola elefanteak, errenoak eta bisonteak, eta basa landareen espezie asko ere bai, lehenago elikagai izaten zirenak. Orduan, mantenua bilatzeko, gizona lurra lantzen eta animaliak hazten ikasi beharrean gertatu zen. Harri leunduzko tresnak erabiltzen hasi zen eta, uztak altxatzeko, zeramikazko ontziak egiten. Bere alorretatik hurbil egon beharragatik, sedentario bihurtu eta lehenbiziko herriak osatu zituen.



Nafarroan aurkitu diren herri paleolitiko zaharrenak (Zatoia, Abaurrea), K.a. 5.000 urte ingurukoak dira eta bertan harri leunduzko tresnak eta zeramika aurkitu dira. Neolitikoaren hondar aldera lehenbiziko brontze piezak azaltzen dira Sakulun (Erronkari).

Garai hartako eraikin aipagarrienak megalitoak dira: lurrean aire zabalean jarritako oroitarrak handiak, jeneralean talde hilobi izaten zirenak, hala nola Etxarri Aranazkoak, Artaxoakoak, Aralarkoak, Urbasakoak eta abar.



- Nafarroan maizenik ikusten diren oroitarrak megalitikoak zutarria (menhirra -1-), trikuharria (dolmena -2-) eta harrespila (cromlecha -3-) dira, denak hilobi izaten zirenak.



jarroverak



- 1** Kokatu Nafarroako mapa batean Paleolitoko lehen eta azken etapako aztarnategiak, koloreen bidez bereiziz.



- 2** Arrazoitu zergatik zen zeramika hain baliagarria Neolitoan.



- 3** Definitu: menhirra, dolmena eta cromlecha.



- 4** Bilatu liburutegian informazioa megalitoen gainean. Deskriba ezazu Artaxoako dolmena eta marraztu ezazu.



- 5** Zein da Nafarroan maizenik ikusten den megalitoa?



- 6** Nafarroan non daude Paleolitoko labarretako pinturaren aztarna bakarrak?



- 7** Lan txiki bat egin Cortesko Alto de la Cruzko herriaren gainean.


2.

Baskoiak eta erromatarrak

K.a. I. mendean baskoiek populatzen zuten Nafarroa. Horrela deitu zioten erromatarrek gaurko Nafarroaren lurralde bertsua eta inguruko lurren zati bat hartzen zuen herriari: Oiartzuneraino iristen ziren, Kantauriko kostan, eta Jakaraino, Huescan; bestalde, Errioxako eta Zaragozako zati bana hartzen zuten.

Baskoiak ez ziren, ez politikaz ez kulturaz, talde homogeneoa. Iparraldeko baskoiak klanetan antolatuta zeuden eta abeltzaintzatik bizi ziren. Hegoaldekoak nekazariak ziren eta Penintsulako beste herri batzuen eragina ezagun zuten, hala nola zeltena eta iberoena.

Baskoien hizkuntza euskararen forma zahar bat zen. Haiek ez ezik, beste herri batzuek ere erabiltzen zuten hizkuntza hori edo antzeko bat: akitaniarrek Pirinioez haraindian, eta segur aski baita barduloek, karistioek eta autrigoiek ere bai Penintsulan bertan. Haiekin ohiturak eta antzeko bizimodua ere komun zituzten.




K.a. II. mendean erromatarren legioak agertu ziren Ebroko haranean. Erromatarrek adiskidantzazko harremana izan zuten baskoiekin eta denboraren buruan baskoi asko legioetan ozteratu ziren inperioko alde guztietan soldado izateko. Pompeio jeneral erromatarrek baskoien artean ezarri zuen bere neguko kanpamentua K.a. 75. urtean eta han Pompaeloko hiria fundatu, gaurko Iruña, orduko baskoi herri baten gainean.

Baskoiak ere, Europako beste herriak bezala, erromartatu egin ziren, hau da, latina ikasi eta erromatarren ohiturak eta bizimodua beretu zituzten; erromatarren eragina, hala ere, handiagoa izan zen Iruñean eta hegoaldean iparraldean baino, eta han baskoien bizimodu tradizionalak bere hartan iraun zuen.

Erromatarren zibilizazioa batez ere hirietan garatu zen: *Calagurris* (Calahorra), *Cascantum* (Cascante), *Andelos* (Andion, Mendigorrian) *Aracilus* (Arakilgo ibarrean) eta -hiri nagusia- *Pompaelo* (Iruña). Hiriok saleroste-gune ziren eta nekazarientzako hornitoki. Kaleak, merkatuak, bainu publikoak, tenpluak, zubiak eta akueduktuak izaten zituzten eta bai sistema hidrauliko konplikatuak ere, Andelosen aurkitu dena, kasu.

Hiriak elkarrekin lotzeko, komunikabide sare bat zuten, hala nola Tarracotik (Tarragona) Akitaniako mugaraino Iruñean barrena joaten zen galtzada, edo Asturican (Astorga) hasi eta Bordeleraino Nafarroan barrena joaten zena. Bide haiei esker salerostea egiten zen inguruko eskualdeekin eta bai urrutiagokoekin ere.



Mapa eta irakurbidea

● Erromatarren jendeguneak eta galtzadak.

Galtzadak izaten ziren hirien arteko lopidea. Galtzada aztarna batzuk baditugu Ziraukin, Belaten eta Ibañetan.

Latina euskararekin batera mintzatu zen Nafarroako lurretan eta latin horretatik Nafarroako erromantzea sortu zen. Nafarroako bertako hizkuntza erromaniko hori XIV. mendera arte mintzatu zen, orduan gaztelarekin nahastu baitzen.



Ezkerrean

- Baskoien lurraldean monedak egin ziren K.a. I eta II. mendeetan. Pieza hauen testuak, alfabeto iberikoan idatziak, BARSKUNES esaten du, hau da, latinez VASCONES esaten zutena, moneda jaulkitzen zuen tribuaren izena alegia.

Eskuinean

- Iruñeko katedrala erromatar hiri zaharren gainean eraiki zen.



IMONKS





● Mosaikoa.

Erromatarrek beren etxeetako lurra apaintzeko mosaikoak erabiltzen zituzten (harritxintzar koloretuz -teselaz- osatutako marrazkiak). Argazkian ageri den honek, Andelosen aurkituak, Bakoren triunfoa irudikatzen du.



jarovuerak



1 Zer lurralde zuten baskoiek? Marraz ezazu hedadura gaurko mapa batean.



2 Zer bizibide izaten zuten baskoiek?



3 Esplika ezazu nola izan zen erromatartzea Nafarroako iparraldean eta hegoaldean. Arrazoitu erantzuna.



4 Koka itzazu Nafarroako mapa batean erromatar hiri nagusiak.



5 Joan zaitetz Nafarroako Museora Nafarroan aurkitu diren mosaiko erromatarren ikusteko. Bakoitzaren fitxa bat egin eta jaso ezazu bertan zer datakoa den, non aurkitua eta zer gai duen.



6 Zergatik zen zure ustez hain inportantea erromatarrentzat galtzadak egitea? Iker ezazu nondik datorren "Bide guztiak Erromara doaz" esaera.





Kristauak eta paganoak

Erromatarren sei mendeko presentziak hizkuntza eta kultura berria ez ezik erlijio berria ere ekarri zien baskoiei, pentsaera eta bizimodua errotik aldatu ziena: kristautasuna.

Erromatarrekin izan zituzten harremanetan, baskoi erromatartuek erromatarren jainkoak beretu zituzten, gainerako inperio guztian bezalaxe: Jupiter, Minerva, Marte, Mercurio, Juno eta abar, baina askotan beren jainko propioak utzi gabe. Hala ere, K.o. III. mendean geroztik kristautasuna lehengo erlijioak lekutzen hasi zen poliki. Tradizioak oinarri historikorik gabe esaten duenez, San Saturninok, Toulouseko apezpikuak, III. mendean predikatu zuen ebanjelioa baskoien artean eta San Fermin kristautu.

III. mendearen bukaerarako, kristautasuna hedatu xamarra bide zegoen Nafarroan, nahiz eta lehengo sinesmen indigenek segur aski mendeak iraun zuten erabat itzaltzen.

Behean

Uxueko arak.

(Nafarroako Museoa daude)

Erromatar hila bizki hauek Uxuen aurkitu ziren eta ongi agertzen dute nola Nafarroan Erromako erlijio inperiala eta bertako jainkoak batera ibili ziren: lehenbiziko harria Jupiterri eskainia da; bigarrena, berriz, Lakubegiri, baskoien jainko bat, agian uretako izpiritur bat.



Kristautasuna Ekialdean sortutako erlijioa da, Judean Jesus Nazaretekoak fundatua. Kristauak jainko bakarra dagoela sinesten dute, lagun hurkoa maitatu behar dela, gizon guztiak jainkoaren aurrean berdin direla eta hil ondoan betiereko bizitza dagoela.

Lehenbiziko kristauak ez zioten enperadoreari gura egin nahi eta esklabotza gaitzesten zuten; hortaz erromatarrek jazarri egin zituzten, inperioarentzat mehatxu handia zirelakoan, harik eta IV. mendean Konstantino enperadoreak erlijio-askatasuna deketatu eta geroxeago Teodosiok kristautasuna inperioko erlijio ofizial egin zuen arte.

Atzeko argazkia

- **San Zerningo eliza.**

Eskuinean behean

- **San Ferminen bustoa.**

Eskuinean goian

- **San Saturninoren Putzua.**

Aurreko orrialdea goian

- **Fiteron aurkitutako gurutzea.**

EGN Comunicaciónek
utzitako argazkia

San Saturnino eta San Fermin

Elezaharrak dioenez K.o. I. mendean San Saturnino Toulouseko apezpikuak ebanjelioa baskoien artean predikatu eta Firmo, Fortunato eta Faustino senadoreak eta beste 40 000 jende kristautu omen zituen. Firmoren seme bat ere, izenez Fermin (Firminus), kristautu eta Toulouse aldera joan zen. Han apezpiku izendatu eta Iruñera itzuli zen. San Fermin, bada, elezaharrean behintzat, Iruñeko lehen apezpikua izan zen. Ondoren Galiara itzuli eta erromatar agintariek heriotara eman zuten, jainkoei sakrifizio egin nahi ez izateagatik.



Ezkerrean

● **San Lorentzoko eliza.**

San Ferminen bustoa dauka, XV. mendekoa .



jarroverak



1 Bisita itzazu San Saturninoko eta San Lorentzoko elizak (San Ferminen kapera), Nafarroan kristautasuna predikatu zuten lehenbiziko santuak dira.



2 Informazioa bila ezazu Konstantino eta Teodosio enperadore erromatarren gainean.



3 Zer diferentzia daude erlijio erromatarren eta kristauaren artean?



4 Bila ezazu informazioa San Fermini egozten zaizkion elezahar edo historien gainean.



6 Zein da kristautasunaren mezu nagusia?



Bisigodoak

V. mendearen bukaeran bisigodoak Hispanian ezarri ziren, bandaloak eta alanoak lekutu ondoren. Mendebaldeko Erromatar Inperioa desagertu zelarik, bisigodoek Erromako boterearen lekua hartu zuten.

Nafarroan Bisigodoen eskumena soilik eremu erromatartuenera iritsi zen. Iruña bezalako hiri handi batek, adibidez, bazuen soldado bisigodoen goarnizio bat, hiria babesteko. Nafarroako Mendialdeak, berriz, oso eremu pobrea zenez, ez zuen interesik konkistatzaileentzat. Baskoiek oso badaezpadako bizimodua izaten zuten han eta, goseak xaxaturik, askotan Ebroren inguruko lur emankorretara jaisten ziren trumil handietan, janaria eta aberastasunak lapurtzera.

Errege bisigodoek buru egin zieten eraso horiei eta behin eta berriz garaitu zituzten baskoi horiek. VII. mendean Suintila errege bisigodoak azpiratu egin zituen eta bai behartu ere *Oligitum* herrian (Erriberri) gotorleku bat eraikitzen laguntzera. Bertan soldado bisigodoak ezarri zituen.

Goian eta eskuinean

- **Guarrazarko altxorra (Toledo).**

Eskuinean

- **Bi heldulekuko pitxertxoak (Nafarroako Museoa)**
San Nikolasko atariaren ondoko hilerrian aurkitua.

Argazkia Larión & Pimoulier



Baskoien aristokrazia eta bertako eliza, berriz, oso erromatartuak baitzeuden, ongi laketu ziren botere berriarekin. Don Rodrigo, azken errege bisigodoa, non eta Iruñeko lurretan zegoen, iparraldeko baskoiekin borrokan, Erreinuaren hegoaldean arabiarrak sartu zirelako berria iritsi zenean. 711. urtea zen.





Herri germaniarren inbasioak

U. mendean germaniar tribu batzuek, Asia eta Europatik etorruta, Mendebaldeko Erromatar Inperioa inbaditu zuten. Herri horiek, zeinei erromatarrek "barbaro" deitzen zieten, nomadak ziren eta Inperioko lurretan ezarri joan ziren itun eta hitzarmenen bidez, eta bai indarrez ere beste batzuetan.

409. urtean, sueboak bandaloak eta alanoak sartu ziren Hispanian baina sarri aski bisigodoak, Galia hegoaldetik frankoek lekututa, herri horiek menderatu eta Penintsula gehienaz jabetu ziren, Nafarroa barne. Toledo ezarri zuten beren hiriburu.



Mapa

- **Bisigodoen aztarnak**
Nafarroan.

Goian

- **Erastunak, Brotxeak, gerriko-belarriak eta monedak.**

Partez Iruñeko Obietagaña hilerri bisigodoan aurkituak.

Ezkerrean

- **Anforak eta jarroiak.**

Orrialde honetan ageri diren pieza guztiak Nafarroako Museoa daude.



Eskuinean

● **Erriberriko harresiak.**

Erriberri oraindik zutik dirau jatorrizko harresi bisigodoen parte batek. Zati batzuk etxebizitza bihurtu dira. Pirinioko ibarretatik zetozen lapur-taldeak baratzeko eraiki ziren.



jarroverak



1 Marka ezazu Europako mapa batean nondik zihoan Mendebaldeko Erromatar Inperioaren eta Ekialdekoaren arteko muga, eta non zegoen bakoitzaren hiriburua.



2 Zer esan nahi du *barbaro* hitzak?



3 Iker ezazu noiz eta nola iritsi ziren bisigodoak Penintsulara? Zer erlijio zuten?



4 Bisigodoek zergatik ez zuten interesik izan Nafarroako mendi aldeetan ezartzeko?



5 Zergatik egiten zituzten baskoiek hainbeste saraldi eta lapurreta-txango Ebroko lur emankorretan?



6 Bila ezazu informazioa liburutegian San Juan de Bañosko eliza bisigodoaren gainean eta deskriba itzazu haren ezaugarriak.



8 Marka ezazu Nafarroako mapa batean non aurkitu diren bisigodoen aztarnak: Iruña, Muru-Astrain, Butzaga (Elortzibar), Erriberri, Villafranca eta Fitero.



5.



Musulmanak

Behean ezkerrean
● **Ataiforra**
*Argazkia EGN
comunicacionek utzia*

Goian eta ezkerrean
● **Tuterako meskitaren
bi pieza musulman.
IX. mendea. (Nafarroako Museoa).**



711n musulmanak Penintsulan sartu zirenean, Don Rodrigo errege bisigodoa, esan bezala, Iruñean zegoen basakoekin borrokan. 714an, musulmanak Ebro ibarrera iritsi ziren, eta 718. urtea baino lehen, Iruñeko goarnizio bisigodoak men egin zien buruzagi berriei.

Nafarroako Erriberan, Casius kondea, eskualdeko gobernaria, Islamera bihurtu zen bere familiarekin, eta hortaz eutsi zien bere botereari eta bere pribilegioei. Familia hau, arabieraz Banu Qasi deitua, mendez eta mendez nagusi izan zen Nafarroako hegoaldean. Musulmanak,

aurreko beste inbasore batzuk bezala (erromatarrek eta bisigodoak), ez ziren benetan ezarri Nafarroako iparraldean, Erriberako lur emankorrak hobetsita.

Horregatik, musulmanek utzi zieten Mendialdeko basakoiei beren botere lokala eta beren ohiturak, legeak eta erlijioa atxikitzen, horren truke musulmanen subirania aitortu eta urtero zenbait tributu pagatzen bazituzten. Iruñean, arabiarren agintaldia oso laburra izan zen eta ez zen VIII. mendetik aurrerago joan.



Islama

Islama Koran liburu sakratuan oinarritu erlijioa da. Korana Mahomak idatzi zuen, Ala musulmanen jainko bakarraren profetak.

VIII. eta XVI. mendeen bitartean Islamak zibilizazio handia garatu zuen, Indiatik Espainiaraino. Zibilizazio horrek eragin handia izan zuen Mendebaldeko kulturean, hain zuzen ere Espainia musulmana bitarte.

Europarrek garrantzi handiko elementu kulturalak ikasi zituzten arabiarrengandik: zenbaki arabiarrek (gaur erabiltzen ditugunak), Indiako literatura, bolbora, iparrorratza, papera, haizerrota, ureztatze sistemak, algodoiaren eta arrozaren laborantza eta abar.





Ezkerrean

● **Dinarra.**

Urrezko diru musulmana,
Fiteron aurkitua

Goian eskuinean

● **Gaztelu plazako hilobi musulmana.**

Berriki, Gazteluko Plazaren indusketetan, VIII. mendeko hilerri musulman bat aurkitu da Iruñean, hilobi guztiak Mekara begira dauzkana. Segur aski Iruña urte bakan batzuetan bere esku eduki zuen goarnizio musulmanarena izango zen.

Argazkia EGN komunikacionek utzia


Goian eta aurreko orrialdean xehetasuna

● **Leireko arketa**
(Nafarroako Museoa).

Leireko arketa musulman hau (kalifatoko artea), kristau erlikiategitako erabili zen.

Eskuinean

● **Hiru kapitel hispaniar-musulman**
(Nafarroako Museoa).



iaarduerak



1 Noiz sartu ziren musulmanak Penintsulan?



2 Nor da musulmanen jainkoa? Nor da haien profeta?
Zein da haien liburu sakratua?



3 Nor ziren Banu Qasitarrak?



4 Koka ezazu Nafarroako mapa batean noraino iristen zen Erriberako gobernari bisigodo Konde Casiusen lurraldea: Tuter, Zarrakaztelu, Uxue, Erriberri, Caparroso, Falces, Valtierra eta Funes.



5 Bila ezazu informazioa Konde Casiusen gainean eta egin ezazu idazlantxo bat haren bizitzari eta musulmanekin izan zuen harremanari buruz.



6 Presta ezazu ahozko azalpen bat arabiarren aportazio kultural nagusien gainean.



7 Bilatu informazioa Leireko arketa gainean. Joan zaitetz Nafarroako Museora ikustera.



6.



Iruñeko erreinua

Gero batean Nafarroako erreinua izango zena-
ren ernamuina IX. mende aldean sortuz joan
zen Nafarroako bi noble-leinuren inguruan, bat-
zuk kristauak eta besteak musulmanak: **Eneko-
tarrak**, Iruñean, eta haien artean Eneko Arista
bezalako errege legendarioak; eta **Banu Qasi-**

tarrak, hegoaldean. Bi leinuok famili lotura sen-
doak zituzten eta elkar laguntzen zuten beren
independentziaren aldeko borrokan, Frankoen
kontra iparraldean, eta Kordobako musulmanen
kontra hegoaldean.



Atzealdean eta gainean

● **Orreagako gudua**ren
monumentua, Ibañetan.

Lizarrako Errege Jauregiko
kapitel baten irudiak
berregiten ditu.



*Ço sent Rollant que la mort li est pres:
Par les oreilles fors s'e ist li cervel.
(...) Prist l'olifan, que reproce n'en ait,
e Durendal, s'espee, en l'autre main.*

Han sumatu du Erroldanek Heriotza hurbil:
Belarrietatik kanpora jalkitzen zaio muina.
Olifanta hartu du, ez erasiarik izateko,
Eta Durendal ezpata beste eskuan



Bi leinuok frankoetatik eta Kordobako musulmanetatik libre irauteko izan zuten borrokan, Orreagako bataila da gertaera aipagarriena (778), zeinean baskoiek **Karlomagno**ren ostea garaitu zuten.



Goian

● Erroldanen

kantoreko zatia.

Erroldanen kantorea
Erdi Aroko poemarik
ederrenetakoa da.
Orreagako gudua eta
Erroldan Bretainiako
dukearen heriotza ditu
kantagai.

Goian eskuinean

● Erroldanen monumentua

Ibañetako gainean.

Aurreko orrialdea, goian

● Eneko Aristaren monumentua,

Iruñeko Nafarroako etorbidean
kokatua.

Orreagako bataila

778an Karlomagnok, garai hartako Europako errege handienak, Nafarroako Pirinioa gurutzatu zuen Zaragozara joateko, hango gobernadore musulmanak laguntza eskatu baitzion Kordobako emirraren kontra. Iritsi zen Zaragozara baina Frantziara harrapaka itzuli beharrean gertatu zen saxoien matxinada bat itotzeko. Erretirada hartan, Iruñeko harresiak desegin zituen.

Ibañetako portu-gaina pasatzen ari zela, baskoiek esetsi, armadaren atzealdea suntsitu eta Erroldan paladina hil zioten, frankoen buruzagi handia.

Garaipen hark oihartzun ikaragarria izan zuen Europa osoan eta *Chanson de Roland* delako kantore famatuan ahoz aho zabaldu zen. Poema horrek musulmanei egotzen die -gezurrez- desastrearen errua, segur aski frankoek lotsagarri irizten ziotelako baskoiek bezalako menditar pobre batzuek haiei gailentzeari.



X. mendearen hasieran, **Antso Gartzes I.a** (905-925) errege zela, Nafarroa behin eta betiko libratu zen musulmanen eskupetik, Iruñak Kordobako kalifekin zituen menpekotza-lotura arinak hautsita. Hortaz, Iruñeko erreinua sortu zen; horrela deitu zitzaion, Iruña apezpiku-hiria eta kristau boterearen sinbolo zelako.

Antso Gartzesek Lizarrerria, Errioxa, (Najera eta Calahorra) eta Gipuzkoa kendu zizkien musulmanei, eta bai Aragoiko konderria erantsi ere Nafarroari. Horren ondorioz, Kordobako kalifek (Almanzor, Abd-al-Rahman III) mendeku-txango lazgarriak egin zituzten Nafarroan barrena. Ez zuten lortu, halere, galdutako lurra berreskuratzetik.

Antso Gartzes III.a Handia erregetu zenean (1004-1035), Iruñeko erreinuaren garai distirantena hasten da. Almanzor (1002) eta bere seme Abd-al-Malik hilda, Antso Handiak harreman ona egin zuen beste errege kristauekin, kristauen artean bakea mantendu eta musulmanei lurra kentzeko. Sobrarbe eta Ribagorzako konderriak konkistatu zituen eta Araba eta Bizkaia ere beretu, ordu arte Gaztelako konderrikoak baitziren. Hortaz, Penintsulako errege kristau handiena bihurtu zen.

Erreinua musulmanen erasoetatik begiratzeko, Antso Handiak bere mugak gotortu eta hornitu zituen, lehengo gaztelu zaharrak berrituz (Falces, Caparrosa, Uncastillo...) eta beste berri batzuk eraikiz, Loarrekoa, kasu (Huesca).

Haren kultura lana ere garrantzi handikoa izan zen. Monasterioak lagundu eta bulkatu zituen, eta Santiago Bidea sustatu.

Antso handia hil zenean, lau semeen artean partitu zuen bere erreinua: **Gartzia Santxez III.a Najerakoak** (1035-1054) Iruñeko erreinua jarauntsi zuen; **Fernandok** Gaztelako konderria; **Ramirok** Aragoiko konderria; eta **Gontzalok** Sobrarbe eta Ribagorzako konderriak.

Gartzia Santxez Najerakoak Burebaraino eta Santanderko badiaraino hedatu zuen bere lurraldea eta Calahorra konkistatu. 1054an hil zenean (Atapuercako batailan), haren seme **Antso Gartzes IV.a Peñalengoak** (1054-1076) heredatu zuen erreinua; 1076an erail zuten Peñalengo harratean, Funesen. Orduan Iruñeko erreinua Gaztela eta Aragoinen artean partitu zen: Gaztelak Errioxa, Bizkaia eta Araba beretzat hartu zituen, eta **Antso Ramirez** (1076-1094) Aragoiko erregea, berriz, Iruñean erregetu zen.

Eskuinean

- **Espiritu Santuaren kapera,**
"Karlomagoren siloa" ere deitua.
Tradizioak dioenez, Frankoen erregeak
Erroldan eta Orreagako batailan hil
ziren besteak ehorzteko eraikin hau
altxatu zuen.



jarroverak



- 1** Noiz sortu zen Nafarroako erreinua eta nor izan zuen lehenbiziko errege?



- 2** Marka itzazu Espainiako mapa batean Antso III.a handiaren lurraldeak.



- 3** Egin ezazu denboraren lerro bat Iruñeko erreinuko errege guztiekin.



- 4** Nola partitu zituen Antso III.a Handiak bere lurak? Iker ezazu liburutegian zer ondorio izan zituen horrek Nafarroarentzat.



- 5** Bisita ezazu Orreaga eta Ibañetako gaina, Erroldanen oroitarria dagoen tokia. Idazlantxo bat egin Orreagako guduaren gainean, Erroldanen gainean eta oroitarrian ageri diren sinboloen gainean.




- 6** Zer monasterio beneditar handi eraiki zen IX. eta X. mendeetan, Nafarroako erregeen panteoia izan zena? Informazioa bilatu liburutegian eta idazlantxo bat egin.



- 7** Bisita ezazu Loarreko (Huesca) gaztelua. Zer lotura du gaztelu horrek Nafarroarekin?



- 8** Deskriba itzazu laburki gizarte eta ekonomia feudalaren ezaugarriak. Asma ezazu fikziozko historia bat Iruñeko Erreinua gertaleku hartuta.



Nafarroako erreinua



Antso Ramirez erregetu zenetik (1076) 1134ra arte, Aragoiko eta Nafarroako erregeak bat izan ziren. Iruña-Aragoiko errege berriek Ebroko ibar osotik desagerarazi nahi izan zuten musulman agintea, eta urte horietan Huesca, Zaragoza eta Tuterá konkistatu zituzten, zein bere eskualdearekin.

1134an, **Alfontso I.a Borrokalaria** hil zenean, Iruñeko eta Aragoiko erreinuak berriro banatu ziren. Iruñak Tuterako Erribera konkistatu berria beretzat gelditu zuen baina azken hamarkadetan konkistatu ziren gainerako lurak (Huesca, Zaragoza) Aragoiek atxiki zituen. Horrela Nafarroa kristau-herriz inguraturik gelditu zen eta aurrerantzean ez zuen musulmanekiko mugarik izango. Hortaz, akabo zen Nafarroan errekonkista eta bere lurraldea zabaltzeko aukera ere bai.

Aurrerakoan beste zerbait izango zuten Nafarroako erregeek kezka nagusi: Gaztela eta Aragoiren kontra beren askatasunari eustea. Hartarako, populazioaren onginaldia bereganatu beharrean zeuden, ez nobleena soilik, horiek askotan bihurri xamarak izaten baitziren, baizik eta, batez ere, nekazari xume eta nekazari noble txikiak (“navarri”) deitzen zitzairen orduko agiritan). “Nafar” horien leialtasuna irabazi nahirik, **Antso jakintsuak** (1150-1194) erreinuari izena aldatu eta aurrerantzean *Nafarroa* deitu zion.

Haren seme **Antso Azkarra** (1194-1234) Nafarroako erregeetan gailenetakoa izan zen. Bera errege zela, Gipuzkoa eta Arabaren partetik handiena Gaztelari erantsi zitzaion, baina hark Nafarroa Behereko lurak eratxiki zizkion bere erreinuari. Horrela, Nafarroak gutxi gora behera bere behin eta betiko lurraldea iritsi zuen.

Antso Azkarrak Nafarroaz landara ere parte hartu zuen errekonkistan eta almohadeen kontra borroka egin zuen Navas de Tolosako Batailan (1212). Haren garaipen hartatik sortu zen Nafarroako armarriko kateen elezaharra.

Ondorengorik gabe hil zen eta bere iloba Teobaldo II.ak (1234-1253) jarauntsi zuen erreinua. Harekin, frantses jatorriko dinastien nagusigoa hasi zen.

Goian

● **Nafarroan armarría,**
Iruñeko katedralako giltzarri batean.



Tradizioak nahi du Nafarroako armarrarian ageri diren kateak Navas de Tolosako batailan Miramamolín emir almohadearen denda inguratzen zutenen irudikapena direla. Errege Antsoak gerrako trofeotzat ekarri omen zituen Nafarroara. Bataila hura baino lehen, Antso Azkarrak arrano baten irudia erabili zuen zigilu pertsonaltzat (ez erreinuko ikurtzat). Arrano hori Marguerite d'Aigle bere amona frantsesaren deituratik erakarri zuen. Aigle arranoa baita frantsesez.



Goian

- **Antso Azkarra Orreagako monasterioan ehortzirik dago.**

Bere hilobiko estatua 2,25 m luze da. Erregeak halakoxe luzera omen zuen, bere hezurren gainean egindako ikerketek agertzen dutenez.

Eskuinean

- **Nafarroan kateak eta Antso Azkarraren arranoa.**



Eskuinean

- **Navas de Tolosako bataillaren oroitzapenezko beiratea.**

Orreagan, Antso VII.a
Azkarraren hilobiaren
ondoan.



jarroverak

- 1 Noiz eta zergatik izan ziren bat Nafarroako erregea eta Aragoikoa?
- 2 Nor izan zen Nafarroako eta Aragoiko azken erregea?
- 3 Zein erregek aldatu zion izena erreinuari eta Nafarroa jarri? Zergatik?
- 4 Koka ezazu mapa batean Nafarroa Beherea. Zein erregek erantsi zion Nafarroari?
- 5 Non dago ehortzirik Antso VII. Nafarroako erregea? Liburutegian informazioa bilatuta egin ezazu haren biografiatxo bat.
- 6 Antso VII.a Azkarraren hilobia dagoen aretoan beirate bat dago. Zer irudikatzen du? Bilatu informazioa liburutegian bataila horren gainean.
- 7 Marraztu ezazu Espainiako mapa batean kristau armadaren eta almohade armadaren ibilbidea Navas de Tolosako batailan.



8.

Nafarroako gizartea

Erdi Aroan

Erdi Aroko lehenbiziko mendeetan Iruñeko erreinuak, gainerako Europak bezala, nekazari eta abeltzainen herrixka txikiak zituen bere lurraldeko osagai nagusia. Iruña zen hiri nagusia.

Erdi Aroko gizarte tradizionala hiru gizarte klasez osatua zen: nobleak, Eliza eta nekazariak.

Eliza eta **nobleak** ziren buruzagi-klasea, lurraren jabeak baitziren. Nobleak erregeari loturik egoten ziren leialtasunezko zin baten bitartez. Parte hartzen zuten erreinuaren gobernamenduan eta arma bidez defendatzen, *tenentzien* buruzagi gisa, (tenentziak gaztelu edo gotorleku batetik defendatzen ziren barruti militarrek ziren). Noble xumeak ere bazeuden, lur jabe txikiak; horiei *infantzoi* zeritzen eta askotan ez zuten nekazariak baino hagitzez hobeagoko bizimodua izaten baina askoz goragoko gizarte estimazioa bai. Erregea, nobleak eta eliza aberastu egiten ziren nekazariei kobratzen zizkieten zergeri esker: zorrak, lanak, hamarrenak, tributuak eta hasikinak.

Nekazariak, hau da, biztanle gehientsuek, ez zuten lurrik; lur zati bat lantzearen truk jaun bati errenta bat pagatzen zioten, jeneralean uztaren parte bat. Gainera beren soroei loturik zeuden eta ez zuten zilegi nahi zutenean uztea. Laborantzatik eta abeltzaintzatik bizi ziren. Labore nagusiak zerealak, mahastia eta oliboak ziren, eta azienda nagusia, berriz, ardiak eta zerriak.

Goian

- **Iruñeko katedraleko giltzarriak.**
Nekazari laneko bi une.

Erreinuaren hasieran gutxi erabiltzen zen dirua. Paguak gaitan egiten ziren, zereal aleekin edo aziendaburuekin. XI. mendeko bigarren erdira arte ez zen hasi Nafarroan lurralde osorako dirua egiten.

X eta XI. mendeetan beste gizarte talde bat sortu zen nobleen eta nekazarien bitartean: **Frankoak**. Pirinioez harainditi Santiagoko erromesbidean barrena etorrita, frankoak hirietan ezarri ziren. *Burgesak* deitu zitzaienten, burgu (auzo) itxietan bizitzen zirelako. Antso Ramirez erregeak eta haren ondorengoek foru bereziak eman zizkieten eta nola-halako botere politikoa ere bazuten: eskubidea zuten, adibidez, Erreinuako gorteetan ordezkariak izateko. Merkataria, mailegari, errentaria eta eskulangile aritzen ziren. Gizarte klase berria sortu zen, beraz, leinuak ez, baizik diruak nobletua.



Kristau jendezko hiru klase horiez gain, Nafarroan bi erlijio gutxiengo ere bazeuden: juduak eta musulmanak. Hauek bazuten libertate zerbait beren erlijioa meskitan eta sinagogetan ospatzeko, baina legeak aparteko auzo berezietan bizitzera behartzen zituen eta zenbait zerga eta tributu pagatzera.

Juduak hiri handienetan bizi ziren. Eskulangintzan, salerosketan, mailegutzan eta medikuntzan aritzen ziren. Judu-auzo nagusiak Iruñean, Lizarran eta Tuteran zeuden. Tuterakoa zen handiena, populazioaren % 27,5 hartzen baitzuen. Bertan jaio eta bizi izan zen Benjamin Tuterakoa, XII. mendeko bidaiari famatua. Gaurko Irakeraino iritsi zen bere bidaian eta *Bidaien liburua* famatua idatzi zuen bere ibiliak kontatzeko. Tuterak beste seme ospetsu bat izan zuen Erdi Aroan: Yehuda-ha-Levi hebraierazko poeta handia, X. mendean bizi izan zena.

Errekonkistaren ondoren kristau lurraldean geratu ziren musulmanak (mudejarrak) Erriberan zeuden gehienak. Libre utzi zitzairen beren instituzioak eta zerga erregimena mantentzen,

eta bere ondasunen jabe oso ziren, baina hiriaren barreneko meskita eta etxea utzi eta harreresiez kanpoko bazter auzo batera joan beharrean gertatu ziren. Auzo horri *mairu-auzo* deitu zitzaion.



Goian

- **Juduen eta musulmanen Irudiak,** Espainiako Erdi Aroko kodizeetan.



Mudejarrak ugari izan ziren Tuteran, Cortesen, Ablitasen, Cascanten, Murchanten, Funesen, Peraltan, Falcesen eta Corellan.

Erdi Aroko mundu honen pilare ideologiko nagusia kristautasuna zen. Kristau izatea zen orduan mundu guztiaren identifikazio osagai nagusia, nobleak izan ala nekazariak, eta kristau izateak garrantzia handiagoa zuen erreinu batekoa zein bestekoa izateak baino. Horregatik zuen Elizak hain esku eta botere handia gizarte hartan.

IX. menderako Leireko monasterioa zutik zegoen, Nafarroako monasteriorik inportanteena izango zena. Nafarroak musulmanei lurak kendu eta beretakotu ahala, beste monasterio batzuk eratxiki zitzaizkion erreinuari: Iratxe, Lizarrerrian, eta San Millan, Errioxan. Monasterio horiek, erlijio gune ez ezik, zientzia eta kultura gorde eta zabaltzeko gune handiak ere izaten ziren. Erregeek denetariko emaitzak eta pribilegioak ematen zizkieten eta hortaz monasterioek ondare handia beretu zuten diruz, lurrez eta objektu baliotsuz.



Aurreko orrialdea

- **Leireko**
monasterioko
kripta.

Ezkerrean

- **Nafarroako**
Foruen argitalpen
zaharra.

Behean

- **Teobaldo I.aren**
estatua.

Nafarroan Unibertsitate
Publikoaren Liburutegian.



Forua

Erdi Aroko Nafarroak zuen osagai bereizgarrienetako bat Forua zen. Jatorrian Foruak idatziz biltzen zituen erreinua eratu baino lehenagotik baskoien bizimodua arautzen zuten ohiturak; forua, beraz, monarkia baino zaharragoa da. Horregatik, Europako Erdi Aroko gainerako erregeek legeak menpekoei eman bai baina berak ez zeuden lege horien menpe, eta Nafarroako erregeak, berriz, zin egin behar zuen Forua begiratuko zuela, erregetuko bazen.

Teobaldo erregearen garaian (XIII. mendea) Foru Orokorren lehenbiziko bertsioa konpilatu zen. Orduan indar zuen ohiturazko zuzenbide guztia jasotzen zuen. Behin eta betiko testua XIV. mendearen hasieran finkatu zen, eta erreinuko konstituzio politikoa bezalako zerbait zen.



Argazia

- **Zaldi apainduen gaine**ko zaldunak. Iruñeko katedralaren klaustroko kapitel batean.

jarbuerak



- 1 **Marr**az itzazu piramide batean Nafarroako Erdi Aroko gizarte taldeak. Piramidearen goialdean talde gallenak jarri eta behealdean apalenak. Iruzk



- 2 Apaizen, nobleen eta nekazarien eskubide-eginbide nagusiak aipatu.



- 3 Nor ziren infantzoiak? Nafarroako zein herriri deritza infantzoien herria?



- 4 Hiztegi entziklopediko batean bilatuta defini ezazu zer diren zorrak, hamarrenak, lanak, errentak, tributuak, hasikinak eta trukea.



- 5 Nor ziren frankoak? Bilatu informazioa liburutegian.



- 6 Koka ezazu Nafarroako mapa batean Erdi Aroan judu-auzoak eta malru-auzoak zituzten hiri nagusiak.



- 7 Esplika ezazu zeure hitzekin zer den Forua eta zergatik Foruak Nafarroa definitzen duen.



- 8 Nola deritze kristauen, juduen eta musulmanen gurtzapen-lekuei? Bila ezazu bakoitzaren adibidetako argazki bat eta ageri diren arkitektura osagaiak iruzkindu.



- 9 Bila ezazu informazioa Nafarroako monasterio handien kokalekua, bizimodua eta jardueren gainean: Leire, Iratxe, Fitero, la Oliva, Tulebras eta Orreagako Kolegiata. Informazio horrekin egin ezazu idazlantxo bat bakoitzaren ilustrazioekin, eta koka itzazu Nafarroako mapa batean.



Donejakue bidea

IX. mendean hotsa zabaldu zen Compostelan, Galiziako herrixka batean, Espainia kristautu zuen Santiago apostoluaren hilobia aurkitu zela. Sarri hasi ziren pelegrinak etortzen ustezko hilobi hartara eta denboraren joanean Santiago-bide hori Erdi Aroko Europaren erromesbiderik handiena bihurtu zen, Europako lau bazterretatik zetorren jende-ibai handia.

Ibañeta, Orreaga ondoan, Europako erromes horiek Pirinioak gainditzeko maizenik erabiltzen zuten ateka zen; Horregatik, mendez eta mendez milaka erromes pasatu ziren Nafarroan barrera Santiagora bidean eta berekin ideia, jakiunde eta arte eta kultura estilo berriak ekarri zituzten.

Haienzat ospitaleak, elizak eta aterpeak eraiki ziren, orduko arte estiloan, erromanikoan alegia. Eraikin horietako asko gaurdaino iritsi dira eta gure ondareko parte funtsezkoa dira.



Goian

- **Seinale ofizialak eta seinale inprobisatuak Garesko mugarrian.**


Ezkerrean

- **Garesko zubia.**
Santiagobideak sortarazi zituen obra zibiletan zubiak izan ziren aipagarrienetakoak, ezinbestekoak baitziren erromesek ibaiak errazago pasatzeko, ibiak bilatu beharrik gabe. Argazki honetako zubia, Argaren gainean, Garesen eraiki zen XI. mendearen hasieran eta haren ikusgarritasunak erdarazko izena eman zion herriari (Puente la Reina). Euskaraz ere gauza bera gertatu da Zubiri herriarekin, hor ere Argaren gaineko zubi batek eman baitzion izena herriari (Zubiria edo Zubi Hiria). Zubiriko zubia 1097ko agiri batean aipatzen da, baina gaurkoak itxura gotikoa du, beranduagokoa.

Eskuinean

740 Km inguru

- Donejakue bidea eta Nafarroan barnako zatia.



Arte errromanikoa Santiago-bidean barrera sartu zen Nafarroan. XI. mendetik ez da ia alerik gelditzen: soilik Leireko monasterioko kriptak eta elizaren parte bat, Aralarako San Migelen santutegia eta Gazolazko eliza.

XII. mendeko Nafarroako eliza errromanikoez hiru nabe izaten dituzte, paraleloak eta kanoi gangaren itxuran eginak. Batzuetan gurutzadura izaten dute eta batzuetan ez, eta ataria tinpansz eta arkeboltaz ausarki hornitua. Alerik islagar-



riena Zangozako Santa Maria la Real eliza da. Beste ale aipagarri batzuk: San Nikolas eliza, Iruñean; Eunateko eliza; Tuterako katedralaren ataria; Uxueko Santa Maria; Uxueko San Martin; San Migel, San Joan Bataiaria, Torres del Rioko Hilobi Santua eta San Pedro de la Ruako klaustroa, Lizarran.

Garai honetako arkitektura zibilararen ale ikusgarriena Lizarrako Errege Jauregia da, Antso VI.aren garaian eraikia, XII. mendean.

Iruñeko burguak XIII. mendean

- XIII. m.ko eremu eraikinduna
- Bideak, sarrerak
- == Harresiak
- |||| Errekak
- Burguko arroila
- Lehenbiziko gazteluaren kokalekua
- Judu-auzoa eta hilerria
- Merkatua
- 1 Mertzedarriok
- 2 Frantziskanoak
- 3 Dominikoak





Ezkerrean

- **Iruñeko burguak XIII. mendean.**
- XIII. mendean Iruñak zituen burguen gutxi gora beherako planoak, gaurko Iruñaren planoari gainjarria.

Santiagobideko jende-jario etengabeak biziki azkartu zituen Nafarroako ekonomia eta kultura, eta bai etorkin franko etorerrarazi ere: **frankoak**. Nafarroako nekazariak ez bezala gizon libreak ("frankoak") zirelako deitu zitzairen horrela. Iruñean frankoek San Zernin eta San Nikolas auzo berriak fundatu zituzten hiri zaharretik (Nabarreriatik) landara. Auzo horiei burgu zeritzon eta auzotarrei, beraz, **burgesak**.

Burges horiei erregeek lege bereziak eman zituzten (foruak), zeinen arabera eskubidea zuten lurra libreki sal-erosi, nahi zuten tokian ezarri eta beren udal agintari propioak hautatzeko.



Argazkia

- Santa Maria la Realeko tinpanoa. Zangoza.

jarrauerak



- 1 Bila ezazu informazioa liburutegian Santiagorako erromesaldiaren gainean.



- 2 Iker ezazu zer ondorio ekonomiko eta sozial izan zituzten Nafarroarentzat Santiagorako erromesaldiek.



- 3 Koka itzazu Nafarroako mapa batean erromanikoko monumentu aipagarrienak.



- 4 Marraz ezazu eskematikoki erromanikoko osagai arkitektoniko nagusiak.



- 5 Bila ezazu Zangozako Santa Maria la Realeko tinpanoaren argazkia, Leireko monasterioko kriptarena, Eunateko elizarena eta Lizarrako San Pedro de la Ruako klaustroarena. Iruzkina itzazu bertan ageri diren arkitektura osagaiak.



- 6 Marka ezazu Iruñeko mapa batean Erdi Aroko hiru burguen arteko muga.



- 7 Bilatu informazioa liburutegian Iruñeko katedralaren kapitela erromanikoen gainean. Nafarroako Museoan daude.



- 8 Egin ezazu ikerlan bat zure herriko eta inguruko Erdi Aroko Artearen gainean, tokiak bisitatuz.

Eskuinean

- **Evreuxtarren armak,**
Iruñeko katedralaren Erdiko nabeko arku nagusian.

Behean

- **Karlos III.a**
1702an Evreuxko katedralaren beirateetatik hartutako marrazkia.



10.

Dinastia frantsesak

■ Champagneko dinastia

1234 - 1274

Antso Azkarra semerik gabe hil zenean (1234), haren iloba **Teobaldo I.**ak jarauntsi zuen Nafarroako koroa, Nafarroako Blankaren eta frantses dinastia bateko kide zen Champagneko kondearen semeak. Errege horrekin hasten da Nafarroan frantses jatorriko errege-leinuen nagusigoa. Nafarroa Gaztelari eratziki arte iraunen zuen.

Errege horietako batzuek ez zuten inoiz oinik ezarri Nafarroan baina hala ere oso erreforma mesedegarriak ezarri zituzten, Frantziako administrazio ereduetan oinarrituak, Europako arreratuak baitziren.

■ Kapetoen dinastia

1274 - 1328

XIII. mendearen bukaeran, Nafarroako **Joana I.a**, Teobaldoren iloba, Felipe Ederrarekin ezkondu zen, Frantziako oinordekoa baitzen, Kapetoen etxekoa. Handik hara, Nafarroa Frantziako erreinuaren lurralde bat izan zen eta Frantziako erregeak Nafarroako errege ere izan ziren, hementxo nobleen haserre handirako.

■ Evreuxko etxea

1328 - 1425

1328an, **Joana Evreuxkoa** Frantziako erregearen alaba Frantzian erregina ezin izan eta, Nafarroako erregina koroatu zenean, Nafarroak berriro izan zituen errege propioak.

Evreuxtarrek zerga-biltze sistemak hobetu zituzten, nafarregandik dirua erdietsi behar baitzuten Frantziako politikan esku-hartu ahal izateko, han interes handiak baitzituzten.

Leinu honetako errege nagusia **Karlos III.a Noblea** izan zen (1387-1425). Haren aita Karlos II.a ez bezala, hura gerrazalea izan baitzen, Karlos III.ak bakea bilatu zuen bai Nafarroan eta bai kanpoan ere (Frantzia, Gaztela eta Aragoi). Iruñeko hiru burguen (Nabarrerria, San Zernin eta San Nikolas) arteko borrokak bukarazi eta dekretuz batu zituen 1423an (Batasunaren Pribilejioa). Iruña, aurrerantzean, hiri bakarra izango zen eta udal bakarra eta iruindar guztientzako instituzio berberak izango zituen.





Ezkerrean

- Karlos III.a Iruñeko katedralean ehortzi zuten, bere emazte Leonorren ondoan. Hilobiak errege-erregina etzanen estatuak ditu, koroatuak eta burua burkoetan bermatua dutela. Haietan honela irakurtzen da: "Bonne Foy, Bonne Foy" (Fede ona, fede ona). Erregeak lehoi baten gainean bermatuak ditu oinak, adorearen eta erregetasunaren sinboloa, eta erreginak, berriz, bi zakurretan, fideltasunaren sinbolo. Zakurretako bat hezur bat jaten ari da. Garaiko herri irudimenak nahi izan zuen hezur hura Nafarroa zela, Frantzia eta Gaztelaren artean tirakatua.

Behean ezkerrean


- **Katedraleko klaustroa.** Ipar-hegaleko trazeziaren xehetasuna.

Arte gotikoa

Nafarroa, Santiagobidearen bitartez, Espainian arte gotikoa sartu zen lehen herrietatik izan zen.

Arte gotikoa hirietakoa da, nahiz eta landa munduan ere eliza gotiko trikiak izaten diren. Hirietan eliza eta katedral handiek hiritarren botere ekonomiko eta politikoa erakutsi nahi dituzte. Arkitekturako teknika berriak (arku puntadunak, gurutzadurako gangak eta arbotanteak) gero eta altuagoko eta handiagoko eraikinak eraikitzeke bidea ematen dute.

Nafarroako gotikoaren eraikin nagusia Iruñeko katedrala eta haren klaustroa dira, Europako gotikoaren adibide paregabea.



Izurri beltza

Nafarroaren historiako desastretik handienetakoa bat, non ez den handiena, 1348ko izurri

beltza izan zen, zeinean Nafarroako biztanleen erdiak hil ziren eta zenbait eskualdetan, batez ere hegoaldean, %60 baino gehiago. Izurritea Asian hasi zen eta maiatzean iritsi zen Iruñeko ateetara, segur aski Santiagobideko erromesez ekarrita. Irailerako Tuteran zen.

Erdi Aro osoan zehar behin eta berriz arrapigatu zen izurria. Horregatik populazioa ez zen XVI. mendera arte lehengoratu.



Goian

- **"Herioren garaipena"** pinturako xehetasuna. Bruegel zaharra (Museo del Prado).



Planoa

ERRIBERRIKO GAZTELU - JAUREGIA

- Jauregi zaharra, teobaldotarrena
- Jauregi berria
- Santa Maria la Realeko eliza
- San Jorgeren kapera
- Lorategiak
- P Patioak

Dorreak

- 1 Dorre handia
- 2 Dorre berria
- 3 Retraiteko dorrea
- 4 Urmaeleko dorrea
- 5 Atariko dorrea
- 6 Hiru koroen dorrea
- 7 Lau haizeen dorrea
- 8 Talaiaiko dorrea
- 9 Presondegiko dorrea
- 10 San Jorgeko dorrea
- 11 Amiamokoen dorrea

Patio-lorategiak


- 12 Txoritegiko patioa
- 13 Laranjondoen patioa
- 14 Lorategi zaharra

Erriberriko Gaztelua

Karlos III.ak Erriberriko gaztelu zaharra handiagotu zuen, gustu frantsesaren araberrako egoitza bat egiteko. Harresi barrengo eremu handiena lorategi bihurtu zuen, haietako batzuk zintzilikatuak, hoge metro baino gorago jarriak. Haiek ureztatze ura altxatzeko sistema konplikatua erabiltzen zen. Hor denetariko landare exotikoak hazten ziren, arbolak toldoen bitartez hotzetik babestuz, berotegia bailitzan. Jauregian zoologiko txiki bat ere sortu zuen, jirafa bat, lehoiak, lau bufalo Asiako, papagaioak eta gamelu bat zituen.

Egoitza nagusiak

- 1 Erregeren saloia
- 2 Erregeren galeria
- 3 Erreginaren galeria
- 4 Erreginaren apaingela
- 5 Erreginaren aretoa
- 6 Igeltsuen ganbera





jarrauerak

- 1 Egin ezazu denboran barnako lerroa Nafarroako dinastia frantsesekin.
- 2 Zein erregez geroztik izan zen Nafarroa Frantziako erreinuaren zati bat? Zein izan zen Dinastia frantses bateko Nafarroako lehen erregea?
- 3 Zergatik zen hain larria Gaztelarentzat Nafarroako erreinuak Frantziarekin bat egitea? Arrazoitu erantzuna.
- 4 Noizez gero izan zituen berriz Nafarroak errege propioak? Zergatik?
- 5 Iker ezazu liburutegian Karlos III.a Noblearen gainean?
- 6 Bila ezazu Izurri beltzaren gaineko informazioa: nola iritsi zen Nafarroara eta zer ondorio demografiko izan zituen.
- 7 Bila ezazu Iruñeko katedralaren klaustroko argazki bat eta aipatu zein elementuk ematen duten aditzera obra gotikoa dela.
- 8 Aipa itzazu XIV. mendeko bi monumentu gotiko, bata erlijiozkoa eta bestea zibila eta laburki deskribatu.
- 9 Bisita ezazu Iruñeko katedrala eta egin ezazu ikerlan txiki bat katedralaren barrenaldeaz eta Karlos III.a eta Leonor emaztearen hilobiaz.
- 10 Presta ezazu ahozko azalpen bat zure herriaren hurbileko monumentu gotiko baten gainean.

Historia baten bukaera

Karlos III.a 1425ean hil zenean, Nafarroako erreinuaren gainbehera hasten da. Nafarroa ez zen berriz oneratu, eta azkenean Gaztelari erantsi zitzaion.

XV. mendeak, Nafarroan, erregetza eta boterea eskuratzeko borroka latzak izan zituen ezaugarri. Gerra zibil latzean jarki zitzaizkion elkarri **Joan II.a** Aragoikoa, Blanka erreginaren senarra, eta haren seme **Karlos Vianako printzea**, noble bando bana aldeko zituztela: beaumontarrak eta agramondarrak.

Beaumontarrak ziren Mendialdeko nobleak; Joan Beaumont Leringo kondea buru zuten eta Karlos printzearen aldekoak ziren. **Agramondarrak** lur zelaietako nobleak ziren; Mosen Piarres Peraltakoa zuten buru eta Joan II.aren aldekoak ziren. Bi alderdi hauen arteko talka bortitzak Nafarroa erabat azpikoz-goratu eta haren ekonomia hondatu zuen.

Vianako printzea 1461ean hil zenean, egoera are zailagotu zen. Gaztelak egokiera hura aprobetxatu zuen potentzia hegemoniko gisa Frantziari gailentzeko. Eta Fernando Katolikoak, Nafarroak Aita Santuari buru egiten ziola aitzakia harturik, 1512an soldadu baskongadoz osatu armada bat bidali zuen, Albako dukea buru, eta ia erresistentziarik topatu gabe inbaditu eta okupatu zuen Nafarroa.



●
Ezkerrean

San Ignazioaren monumentua, Iruñean.

Gaztelako armadak Iruñean ezarri zituen soldadoetatik bat Ignazio Loiolakoa zen, gero santu izanen zena. 1521ean Nafarroako erregearen armadak, erreinua berreskuratu beharrez, Iruña setiatu zuenenan, Ignaziok zauri larriak hartu zituen. Iruñeko monumentu honek irudikatzen du kanoi bala batek hanka txikituta santua lurretik jasotzen duten momentua.



Ezkerrean

- **Amalurko monumentua,**
Gaztelu hartan gogor egin
zuten zaldunen gorazarrez.

Behean

- **Nafarroa**
Behereko paisaia.

Nafarroako errege legitimoen azken defendarik Amalurko gazteluan hartu zuten geriza, Baztanen. 220 zaldun agramondar itxi ziren bertan, gaztelauek garaitu arte.

1512ko uztailaren 25ean Iruña errenditu zen. Albako dukearen kondizioak eskuzabalak izan ziren: hitz eman zuen bategitearen aurreko foruak, ohiturak eta pribilegioak begiratuko zituela eta ez ziela errebeldeei ondasunik konfiskatuko.

Denboraren joanean, agramondarrek ere etsi zuten egoera berrian. Haietako asko Nafarroan geratu ziren eta Fernando Katolikoa erregetzat onartu. Beste batzuek ihes egin zuten eta Erreinu berreskuratzeko hainbat saiotan parte hartu. Gehienak, ordea, itzuli ziren azkenean, erregeren indultuak aprobetxatuz, eta lehengo ondasun eta karguak berreskuratu zituzten.



Nafarroa bere erreinuari eratxeki ondoren, Gaztela Frantziari nagusitu zitzaion, Pirinioez harandian posizio militarrek hartuta.

■ Nafarroa Beherea

Nafarroako azken errege-erreginak, Katalina Foixkoa eta Joan Albretekoa, Frantziara joan ziren ihesi. Handik, behin eta berriz saiatu ziren gaztelauek Nafarroatik kasatzen, alferrik. Azken saioak 1521ean huts egin zuen.

1530ean Karlos I.a Espainiakoak, errege-erregina katolikoen semeak, utzi zuen Nafarroa Beherea (Pirinioez harandian), frantsesetatik defendatu ezinik. Orduan Katalina eta Joanen ondorengoek okupatu zuten eta Nafarroako erregearen titulua erabili zuten aurrera ere.

1594an, Nafarroako Enrike III.a erregetu egin zen Frantzian, eta 1620an Nafarroa Beherea behin eta betiko eratxeki zitzaion Frantziako koroari. Frantziako Iraultzan, Nafarroa Beherea Pirinio Atlantikoen departamentuan sartu zen eta bere foruak eta instituzioak galdu.

Jasotarrak eta Nafarroaren konkista

Frantzisko Xabierkoaren familia agramondarren bandokoa zen, inbasoreen kontrakoa eta dinastia legitimoaren aldekoa.

Hala ere, Juan de Jaso aita, inbasioa eta konkista gertatu ondoren, errege berriaren zerbitzuan jarri zen eta eutsi zion Erregeren Kontseiluan edukitzen zuen karguari, agintari gaztelau berrien esanetara.

Hil zenean, Migel eta Juan semeak bi aldiz altxatu ziren gaztelauen kontra. Horren zigortako Cisneros kardinalak Xabierko gazteluaren harresiak lurreratzeko agindu zuen. 1516ko maiatzean, Frantzisko Xabierkoak, hamar urte zituela, ikusi zuen bere jaiotxeke harresiak, dorreak eta almenak nola erortzen giren.




Behean

- **Xabierko gaztelua.**
1892ko lehen
eraberritzea baino lehen.

Goian

- **Jasotarren armarrria,**
Gazteluaren sarreran.





jarroverak



1 Vianako Printzea bizi artean erreklamatu zituen bere eskubide dinastikoak. Nori jarki zitzaion horretarako? Zergatik?



2 Bila ezazu informazioa liburutegian Karlos Vianako Printzearen gainean eta idatz ezazu haren biografia.



3 ¿Qué relación de parentesco tenía Fernando el Católico con el Príncipe de Viana?



4 Nor ziren agramondarrak eta beaumontarrak? Noren aldeko izan ziren batzuk eta besteak Nafarroako gerra zibilean?



5 Seinala ezazu mapa batean Nafarroa Beherearen lurraldea. Nola deitu zitzaion?



6 Nafarroak, Gaztelari eratzekitzean, galdu al zituen bere foru eta pribilegioak? Ekarki al zuen horrek Nafarroako erreinua desagertzea? Eman arrazoiak erantzunetan.



7 Zergatik Cisneros kardinalak agindu zuen Xabierko gaztelua desagitea?



8 Bila ezazu informazioa San Frantzisko Xabierkoaren gainean eta egin ezazu idazlantxo bat santu horrek ezagutu zuen munduaren gainean.

HITZONDOA

Nafarroa Gaztelari eratxikitzeak ez zuen ekarri Nafarroako erreinua desagertzea. Espainiako erregeek Nafarroako legeak (foruak) eta bai barne antolamendua ere begiratu zituzten.

Nafarroak XIX. mendearen erdira arte erreinu iraun zuen, lege propioak emateko gaitasuna zuela, orduan, karlistaden ondoren, Foru Eraentzaren sakon-sakoneko aldaketa hitzartu baitzen Estatuarekin: **1841eko Lege Itundua**.

Lege Itunduak gauza askotan igualdu zuen Nafarroa Espainiako beste herrieekin, baina Foru Diputazioak, halere, hainbat gobernu-funtziori eutsi zien eta eskumen asko erabiltzen zituen (bideak, errepideak, osasuna, hezkuntza, kultura eta abar).

Egoera honek (Foru Eraentzak), 1982 urtera arte iraun zuen, nahiz gobernu zentralak abolitzera eta urratzera egin zuen behin baino gehiagotan. 1982an **Forua Hobeagotzeko Legea** indardundu zen, hau da, Estatuarekin egindako itun berria, Francoren diktaduraren ondotik Forua Espainia demokratiko berriaren errealitatera moldatu beharrak sortua.

Hobeagotzeak, Nafarroari *Foru Komunitate* deitzen dionean, eta ez *autonomi elkargo*, Espainiako beste komunitateak bezala, aditze-ra ematen du Nafarroaren autogobernua berezia dela, zuzenean eta etenik gabe Erdi Aroko erreinuak zuen beregaintasunetik heldu baita.

jarbuerak



1 Nor zen Espainian errege 1841eko Lege Itundua eman zenean? Iker ezazu zer alderdik gobernatzen zuen eta zer ideologia zuen.



2 Informazioa bilatu Gamazadaren gainean eta presta ezazu ahozko azalpen bat gertaera horren gainean.



3 Zer ahaidego zuten Fernando Katolikoak eta Vianako printzeak?

GLOSARIOA

Agramondarrak: Gaztelauek Nafarroa konkistatu zutenean, Enrike II.a Nafarroako errege legitimoaren aldeko ziren nafar nobleen alderdia.

Almohadeak: Afrikaren iparraldeko herria, XII. mendearen bukaeran Gibraltargo itsasarte pasatu eta penintsulako musulmanak kristau erreinuen erasotik defendatzera etorri zena.

Al-Andalus: Musulmanek VIII. mendetik errege katolikoek XV. mendean erabat kasatu zituzten arte penintsula iberikoan okupatu zuten zatia.

Arabeak: Arabiako penintsularen biztanleak, Itsas Gorria eta Pertsiaiko Golkoaren artean. VII. mendean islam erlijioa sortu zen haien artean eta geroztik herri asko konkistatu zituzten, eta beren hizkuntza, kultura eta erlijioa inposatu zieten. Mediterraneoko mutur batetik bestera hedatu ziren, Penintsula Iberikoa barne.

Arrianismoa: Kristau konfesioa, bisigodoen artean zabaldua, harik eta VI. mendean katoliko egin ziren artea (Leovigildo).

Beaumontarrak: Nafarroa Gaztelari eratxekitzearen aldeko ziren nafar nobleen alderdia.

Burgua: Erdi Aroko auzoei zeritzen horrela. Iruñak Erdi Aroan, 1423 urtera arte, hiru burgu zituen: Nabarrerria, San Zernin eta San Nikolas. Burguetako biztanleak frankoak izaten ziren, Nabarrerriakoak ezik, horko biztanleak nafar zaharrak baitziren. Nabarrerriaren barrenean San Migel auzoa eta Judu-auzoa ere kontatzen ziren.

Kontuen ganbera: Nafarroako erreinuko auzitegia, erregearen kontuak eta oro har zerga eta diru kontuak ikertzen zituen. Gaur egun izen horrekin beste instituzio bat ezagutzen da, Nafarroako Parlamentuaren menpekoa, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako gainerako administrazio publikoen kontuak eta jardura ekonomikoa ikertzen dituen.

Errege Kontseilua: Nafarroako Erreinuaren auzitegi Gorena zen, eta erregeordearekin batera zenbait gobernu eskumen erabiltzen zituen, besteak beste udalei eta kontzejuei kontu egitea. 1836an desagertu zen.

Gorte Nagusia: Nafarroako erreinuko auzitegi-tako bat. Epaitegi hutseko eginkizunak zituen.

Nafarroako gorteak: Behiala Nafarroako herria, erreinua, erregeren aurrean ordezkatzeko zuten organoa zen. Gaur Nafarroako Parlamentuari deritza horrela.

Erreinuaren diputazioa: Nafarroako erreinuko gorteek, bilkura egiten zuten aldiro, hurrengo bilkurara arte beren erabakiak betetzen zirela begiratzeko izendatzen zuten batzordea. Gaur egun Foru diputazioa esatean Nafarroako Gobernua aipatzen da.

Harrespila edo cromlecha: Zirkulu baten itxuran jarritako menhir multzoa.

Gurut zadak: XI eta XIII. mende bitartean Europatik Palestinara abiatutako espedizio militarrek, Jerusalem hiria musulmanen eskuetatik kendu beharrez, VIII. mendean konkistatu baitzuten.

Dolmena: Hiletarako eraikin megalitikoa. Harlauza bertikal handiek hormaren lana egiten zuten, eta beste horizontal batek teilatuarena.

Estamentua: Feudalismoan bizimodu edo gizarte eginkizun bereko talde sozial bakoitzari zeritzan horrela (nobleak, apaizak eta nekazariak).

Feudalismoa: Mendebaldeko Europan X eta XII. mende bitartean nagusi zen antolamendu politiko, sozial eta ekonomikoa, basailutza harremanetan eta landa giroko bizitzan oinarritua.

Frankoak: Ez nahastu orain ahotan ditugun frankoak eta izen bereko herri germaniarra, Rhin ibaiaren ingurutik etorria eta Galian V. mendean finkatua Erromako boterea desagertzenean. Gure franko hauek dira Languedoc-etik Nafarroan XI. eta XII. mendeetan ezarri ziren etorkinak, hemengo erregeengandik eskubide bereziak (foruak) hartu zituztenak. Franko izena eman zitzaion Nafarroako nekazariak ez bezala gizon libreak zirelako (frankoa=librea)..

Infantzoia: Nafarroako landa giroko noble xumeak. Beste toki batzuetan ageri diren kapareen maila berekoak.

Islama: Islama mahomak idatzitako Koran liburu sakratuan oinarritu erlijioa da. Mahoma, musulmanentzat, Ala jainko bakarraren profeta da.

Judu-auzoa: Erdi Aroko hirietan, juduak biztanle nagusi zituzten auzoak.

Merindadea: Nafarroako tradiziozko banaketa administratiboa, zeinaren buru merio deitu funtzionarioak egoten ziren (hortik izena). Gaur egun bost merindade daude (Iruña, Lizarra, Tuter, Tafalla-Erriberri eta Zangoza), baina ez dute administrazio funtziorik

Monoteismoa: Jainko bakarra dagoela sinisten duen erlijioa.

Megalitoa: Neolitikoaren garaiko harrizko monumentu handia (grekeraz *mégas* = handia; *lithos* = harria)

Menhirra: Lurrean zut iltzatutako oroitarria, zutarrria.

Mosaikoa: Teselak deitu Kolorezko hartxintzar edo zeramika zatiz lurrean edo paretetan egindako marrazkia.

Mozarabea: Erdi Aroko Espainian musulman lurrean bizi zen kristaua.

Mudejarra edo moriskoa: Errekonkistaren ondotik kristau lurrean gelditu zen musulmana. Haien arte estiloari ere mudejar deritza

Musulmana: Islama erlijiotzat duen pertsona (ikus Islam)

Neolitikoa: Harriaroko garairik berriena. Gizona sedentario bihurtu zen eta koba edo beroki naturaletan bizitzen jarri; lurra lantzen zuen eta harri leunduzko tresnak egiten. K.a. 7000. urtetik K.a. 3500. urteraino doa, azken data horretan lehenbiziko agiri idatziak agertzen baitira.

Paleolitoko: Harriaroko aldirik zaharrena. Paleolitoko gizonak nomadak izaten iren eta harria lantzen zuten tresnak egiteko. K.a. 5 milioi urte ingurutik Neolitikoraino joaten da.

Vianako printzea: Nafarroako erreinuaren erregeaiari ematen zitzaion titulua. Vianako printzerik ezagunena Karlos printzea izan zen.

Herri germaniarrak: Erromatarren inperioko mugez landara bizi ziren tribuak.

Errekonkista: Penintsularen iparraldeko kristau erreinuak musulmanei lurra kenduta hedatzeari deritza errekonkista. XI. mendean hasi eta Errege-erregina katolikoek Granada 1492an hartu zutenean bukatzen da.

Jendeberritzea: Musulmanei kendutako lurak kristau biztanlez betetzea.

Erromanikoa: Europa mendebaldean XI, XII eta XIII. mendearen parte batean nagusi izan zen arte estiloa.

Erromanizazioa: Erromatarren kultura eta bizi-modua Erromatarren inperioak menpean zeukan lurralde osoan ezartzea.

Erreinuko auzitegiak: Nafarroako foru eraentza zaharrean epaiketa kontuak bere gain zituzten organoak ziren (Erregeren Kontseilua, Gorte Nagusia eta Kontuen Ganbera).

Erregeordea: Erregearen ordezkari aritzen zen pertsona.



Historian zehar inoiz

Nafarroako Erreinua

osatu duten lurralde

guztien gutxi

gora-beherako mapa.





Santander

Donostia

Bilbo

Donibane
Garazi

Gasteiz

Iruña

Arán

Burgos

Logroño

Zangoza

Leire

San Juan
de la Peña

Nájera

Calahorra

Tafalla

Sos

Uncastillo

Loarre

San Millán

Arnedo

Tudera

Tauste

Roda

Valladolid

Roa

San Esteban
de Gormaz

Burgo de Osma

Garray

Tarazona

Bojatera

Simancas



Galdera



Galdera eta arrazoibidea



Edukiak bilatu



Bisita interesgarria



Mapekin lan egin



Lana